

V - BESTELAKOAK

KIROLARABA FUNDAZIOA

Goi mailako klubentzako laguntza deialdia 2022. urterako

1. artikulua. Xedea eta helburua

Deialdi honen xedea da Kirolaraba Fundazioak arautzea Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabean kokatuta dauden kirol klub eta/edo elkarteei laguntzak emateko modua, baldin eta Eusko Jaurlaritzako kirol erakundeen erregistroan izena emanda badaude, Arabako lurralde kirol federazioei atxikita badaude eta kategoria absolutuan goi mailako taldeak badituzte.

Laguntza horren helburua da deialdi honen 3. artikuluan deskribatzen diren baldintzak betetzen dituzten kirol klub eta/edo elkarteek beren jarduerak garatzeko behar beste baliabide izatea.

Hori guztia, Kultura eta Kirol Sailaren norgehiagokako dirulaguntzen araubidea arautzen duten oinarri orokor arauemailetan (Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, 2019ko azaroaren 20ko 134. ALHAOn argitaratua, martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuaren bidez aldatua), Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Dekretuan eta honako deialdi honetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua. Laguntza emateko prozedura

Laguntza horiek norgehiagoka bidez emango dira.

3. artikulua. Erakunde onuradunak eta kanpoan utzitakoak

1. Kirol klub eta/edo elkarteek ondoko baldintza hauek bete behar dituzte mota honetako laguntzak jaso ahal izateko:

a) Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean kokatuta egotea.

b) Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea.

c) Arabako lurraldeko kirol federazioetako bati atxikita egotea.

d) Lehiaketa ofizial federatuko jardueretan parte hartzea edo parte hartu izana, betiere kategoria absolutuan, kirol mota edo diziplina beraren mailarik gorenean, 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitarteko denboraldian.

2. Laguntza jaso dezaketen taldekako lehiaketak ohikoak eta erregularrak dira. Ondorioz, baztertuta daude kirol-arrakasta lortzeko asmoa duten guztiak, hala nola Europako edo munduko txapelketak, Erregearen edo Erreginaren kopa, autonomia erkidegoko selekzioak, eta abar.

3. Betiere, lehiaketa horiek lehiaketa mailarik gorenei dagozkiela iritziko da. Horren ondorioz, baztertuta egongo lirateke deialdi honetatik honelako lehiaketak: 2 mailako, 3 mailako edo B mailako txapelketak, oinarritzko mailako txapelketak, 2. mailako txapelketak, autonomia erkidegoetako selekzioak eta antzekoak.

4. Artikulu honen aurreko apartatuetan jasotakoari dagokionez, honako salbuespen hauek aplikatuko dira:

a) Laguntza hau jaso dezaketen jardueren artean sartuko da xakean, eskubaloian, emakumezkoen txirrindularitzan, kirol egokitan, futbolearen, herri kiroletan, errugbian, emakumezkoen triatloian eta waterpoloan, autonomia erkidegoko lehiaketan parte hartzea.

b) Laguntza hau jaso dezaketen jardueren artean sartuko da emakumezkoen txirrindularitzan eta kirol egokituari, kadete eta gazte kategorietako lehiaketan parte hartzea.

c) "Zazpi Herrialde" izeneko txapelketan parte hartzea Espainiako Txapelketan parte hartzearen parekoa izango da.

d) Aurkeztutako modalitatea/espezialitatea lehendik dauden eta ofizialki onartuta dauden federazioetako batean ere sartzen ez den kasuetan, eskaerak balioesteko arduraren kide anitzeko organoak, egokia iruditzen bazaio, federazioen arteko baliokide bat hartu ahal izango du erreferentziatuta.

e) Arabako Foru Aldundiarekin beren goi mailako talderen baterako babesletza kontratua duten kirol klub eta/edo elkarteek ezin izango dute laguntza deialdi honetara aurkeztu, baina maila altukoak baino beheagoko kategorietako taldeentzako eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte, baldin eta deialdi honetako gainerako baldintzak betetzen badira.

5. Berariaz baztertuta geratuko dira deialdi honetatik honako tipologia hauetakoren batean dauden erakundeak:

a) Kirol erakunde profesionalak; halakotzat hartzen dira indarrean dauden araudian arautuak (LFP, ACB, etab.).

b) Aurreko letran aipatu ez diren eta kirolari profesionalak dituzten klubak.

c) Arabako Foru Aldundiarekin euren goi mailako taldeentzako babes kontratua daukaten goi mailako kirol klubak edo elkarteak. Aurrekoa gorabehera, kirol klub eta/edo elkarte horiek eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte goi mailakoak baino beheagoko kategorietako taldeentzat, baldin eta deialdi honetako gainerako baldintzak betetzen badira.

d) "Profesionaltzat" jo ez diren eta kontratu loturak eta/edo bestelakoak dituzten klubak, bertiere klub profesionalekin edo halakotzat jotzen direnekin zuzenean (klub filialarekin, adibidez).

e) Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian eta haren osteko aldaketetan jasotzen diren egoeretan dauden pertsonak edo erakundeak. Dekretu horrek onetsi zituen Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak.

4. artikulua. Laguntzen zenbatekoak, guztira

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezingo du inola ere gainditu helburu horretarako jarri den zenbatekoa, hau da, 225.000 euro. Kirolaraba Fundazioaren 2022ko aurrekontuaren kontura izango da zenbateko hori.

Aurrekontu horrek ez du esan nahi Kirolaraba Fundazioak osorik kontsumitu behar duenik.

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatu ondoren soberakinik badago, eskabideak balioesteko arduraren kide anitzeko organoak proposatu ahal izango du dirulaguntza hori fundazioaren beraren goi mailako kirolarientzako laguntzen 2022ko deialdira bideratzea.

5. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta aldia

1. Entrenamenduetatik eratorritako gastu lagungarriak:

Eskatutako laguntza jaso ahal izateko, egindako kirol jarduerak sortutako gastuek honako kategoria hauetakoren baten barruan egon beharko dute:

a) Entrenatzaileei eta monitoreei, laguntzaileei, mekanikariei eta antzeko ezaugarriak dituzten beste langile batzuei emandako ordainsariengatikoa gastuak, 60.000 euroko mugaraino.

Zerbitzua kanpora ateraz gero, fakturak kirol entrenamenduetan espezializatutako enpresenak eta/edo profesionalenak izango dira, eta, ondorioz, kanpoan geratuko dira antzeko ezaugarriak dituzten federazio, klub, kirol elkarte eta irabazteko xederik gabeko beste erakunde batzuetatik datozenak.

b) Medikuntza, fisioterapia eta masaje zerbitzuen, albaitaritza zerbitzuen, ortopedia eta antzeko beste zerbitzu batzuen ordainsariengatiko gastuak, 30.000 euroko mugaraino.

Zerbitzua kanpora ateraz gero, fakturak jarduera horretan espezializatutako enpresenak eta/edo profesionalenak izango dira, eta, ondorioz, kanpoan geratuko dira antzeko ezaugarriak dituzten federazio, klub, kirol elkarte eta irabazteko xederik gabeko beste erakunde batzuetatik datozenak.

c) Lizentziengatiko eta entrenamendu aldiagatiko gastuak, 20.000 euroko mugaraino.

d) Entrenamenduko eta lehiaketako kirol ekipamendua erosteagatiko gastuak, 7.000 euroko mugaraino.

e) Kirol material suntsikorra (baloiak, bolak, botika kutxarako materiala eta entrenamendua garatzeko behar-beharrezkoa den material guztia) erosteagatiko gastuak, 7.000 euroko mugaraino.

Salbuespen gisa, onartuko dira bertoko kirolarekin lotutako materialak, norberak erabiltzekoak badira edo hertsiki suntsikorrek ez badira ere.

f) Entrenamenduetarako instalazioak alokatzeagatiko gastuak, 15.000 euroko mugaraino.

2. Lehiaketatik eratorritako gastu lagungarriak:

Eskatutako laguntza jaso ahal izateko, lehiaketa ofizial federatuan egindako kirol jarduerak sortutako gastuek honako kategoria hauetako baten barruan egon beharko dute:

a) Arbitraje, epaile, kronometraje eta laguntzaileen gastuak, 15.000 euroko mugaraino.

b) Kanon gastuak eta federazio tasak (ez abalik ez zehapenik), 15.000 euroko mugaraino.

c) Parte hartzen duten kirolarien eta teknikarien joan-etorri, jatordu eta ostatu gastuak, betiere zuzendaritzako langileak ez badira, eta lehiaketako hornidura gastuak, 20.000 euroko mugaraino.

• Lehen aipatutako joan-etorri gastuei dagokienez, onargarrizat joko dira kirolari, entrenatzaile eta/edo probetako ordezkari espezifikoen joan-etorrietarako egindakoak, eta ez dira sartuko zuzendaritzako langileenak.

Joan-etorriak garraio kolektibo publiko zein pribatuan egin beharko dira (autobusa, trena, taxia, etab.).

Mugitu beharreko pertsona kopurua dela-eta garraio kolektiboa gomendagarria ez bada, ibilgailu pribatuetan egindako joan-etorrien gastuen egiaztagiriak aurkeztu ahal izango dira, eta balioespena izango da 0,29 €/km.

Gastu hori justifikatzeko, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da (III. eranskina), ibilgailuaren matrikula, irteerako eta iritsierako herriak eta egindako kilometroak jasotzen dituenak. Egindako ibilbide bakoitzeko lerro bat beteko da..

Goian aipatutako inguruabarretako edozeinetan, ulertuko da erakunde eskatzailearen egoitzaatik aterako dela lehiaketa egiten den lekura, eta, itzulerako bidaian, irteerako herria izango dela lehiaketa lekua, eta helmuga erakunde eskatzailearen egoitzako herria.

• Lehen aipatutako otordu gastuei dagokienez, onargarrizat joko dira kirolariei, entrenatzaileei eta/edo ordezkariak sortutakoak kasuan kasuko lehiaketa egunetan; nolahi ere, zuzendaritzako langileei dagozkienak ez dira onartuko.

Kontzeptu hori lehiaketaren udalerriri eta horrek irauten duen egunei baino ez zaie aplikatuko, eta, beraz, kanpoan geratuko dira joan-etorrian elikatzeak eragindako gastuak eta lehiaketa egunetatik kanpo egindakoak.

- Lehen aipatutako ostatu gastuei dagokienez, kirolariek, entrenatzaileek eta/edo ordezkariak lehiaketa egunetan sortutakoak bakarrik izango dira onargarriak, eta ez dira kontuan hartuko zuzendaritzako langileei dagozkienak.

Lehiaketa egingo den herriari eta hura egingo den egunei dagozkien gastuak bakarrik onartuko dira, bai eta aurreko eta hurrengo egunei dagozkienak ere; beraz, kanpoan geratuko dira aurrez adierazitakotik kanpo egindako joan-etorriek, otorduek eta ostatuak eragindako gastuak.

3. Oro har, 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitarteko aldiari dagozkion gastuak lagunduko dira diruz. Hornidura gastuei dagokienez, aldi horretan fakturatutakoak baino ez dira diruz lagunduko.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, kasuan kasuko deialdietan ezarritakoaren arabera balioetsi ondoren, 150 euroraino iristen ez diren eskaerak.

7. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izango dira Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeako Kirol Klubak eta Elkarteak Mantentzeko Dirulaguntzen 2022ko deialdian emandakoekin.

Dena den, bateragarriak izango dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publikoek zein erakunde pribatuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek), bai eta Arabako Foru Aldundiko bertako beste sail batzuek ere, ematen dituzten dirulaguntzekin eta laguntzekin, baldin eta ez bada gainditzen diruz lagundutako kontzeptua.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen dirulaguntza edo laguntzekin batera, ez du inola ere gaindituko sortutako gastuen kostua.

Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio organo esleitzaileari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duenez edo eskuratzeko eskaerarik egin duenez, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik.

8. artikulua. Organo eskudunak

1. Prozedura hasteko organo eskuduna Kirolaraba Fundazioaren Patronatua izango da, laguntzen deialdia onartzeko egintzaren bidez.

2. Prozeduraren instrukzioa egiteko organo eskuduna Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua izango da. Zerbitzu horri dagokio onuradunek eta bidalitako dokumentazioak deialdi honetan ezarritako betekizun tekniko eta administratiboak betetzen dituztela egiaztatzea.

3. Eskabideak balorazio batzorde batek balioetsiko ditu. Batzorde horren osaera deialdi honen 12. artikuluan arautzen da.

4. Laguntzak emateko prozedura Kirolaraba Fundazioaren Patronatuak ebatziko du, eskumen hori presidentearen esku utziko du.

5. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoak ebazteko eskumena Fundación Kirolaraba Fundazioaren Patronatuarena izango da, eta lehen-dakariari emango dio eskuordetza.

9. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Eskabideak Fundazioaren Patronatuari zuzendu beharko zaizkio, eta modu elektronikoan bete beharko dira, Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan horretarako dagoen formularioan, esteka honetan: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/goi-mailako-klubentzako-laguntza>.

Horretarako, aldez aurretik, erakunde eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Informazio gehiago: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>. Hori guztia Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Eskabide-inprimakian, erakunde eskatzaileak diruz lagundu daitezkeen gastuen eta aurreikusitako diru-sarreraren aurrekontua zehaztuko du.

2. Eskabidearekin batera, dagokion Arabako federazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, taldearen administrazio datuak eta heldu den lehiaketa maila adierazten dituen. Dokumentazio hori zigilatuta egongo da, eta Arabako federazioaren arduradunaren izena eta sinadura izango ditu (l. eranskina).

3. Instrukzio organoak, administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako plataformen bidez, egiaztatuko du erakunde eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izateko baldintzak betetzen dituela, salbu eta erakunde horrek horren aurka egiten badu; kasu horretan, egitate hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (abenduarien 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, aldatua, azken xedapenetatik hamabigarrenean).

4. Deialdian parte hartzen duen erakunde bakoitzak eskaera bakar bat aurkeztu beharko du, dituen modalitate edo espezialitateak gorabehera.

5. Eskabidean jarri beharreko daturen bat edo nahitaezko agiriren bat falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela. Administrazioak eskaera horren esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du.

10. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun balioduneko izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

1. Laguntzak banatzeko, puntuazioaren arabera banaketa sistema bat aplikatuko da, honako arau hauek hurrenez hurren aplikatzean datzana:

- Erakunde eskatzaile bakoitzari puntu kopuru bat emango zaio, diruz lagundu daitezkeen gastuen gutzizkoan oinarrituta, jarraian agertzen den taularen arabera.

- Deialdi honen 3. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituen erakunde bakoitzari esleitutako puntuak batuko dira.

- Ebazpen honen 4. artikuluan ezarritako laguntzaren zenbateko osoa erakunde eskatzaile guztiek lortutako puntuen baturarekin zatituko da. Banaketa horren emaitza puntu bakoitzaren balio ekonomikoa izango da.

• Erakunde bakoitzari emandako puntu kopurua bider puntuaren balio ekonomikoa egingo da; horrela, erakunde onuradun bakoitzari dagokion diru kopurua lortuko da.

GASTU LAGUNGARRIAK, GUZTIRA	PUNTUAK
5.000 eurora arte	5
5.000,01 euro eta 10.000,00 euro artean	10
10.000,01 euro eta 15.000,00 euro artean	15
15.000,01 euro eta 20.000,00 euro artean	20
20.000,01 euro eta 25.000,00 euro artean	25
25.000,01 euro eta 30.000,00 euro artean	30
30.000,01 euro eta 35.000,00 euro artean	35
35.000,01 euro eta 40.000,00 euro artean	40
40.000,01 euro eta 45.000,00 euro artean	45
45.000,01 euro eta 50.000,00 euro artean	50
50.000,01 euro eta 55.000,00 euro artean	55
55.000,01 euro eta 60.000,00 euro artean	60
60.000,01 euro eta 65.000,00 euro artean	65
65.000,01 euro eta 70.000,00 euro artean	70
70.000,01 euro eta 75.000,00 euro artean	75
75.000,01 euro eta 80.000,00 euro artean	80
80.000,01 euro eta 85.000,00 euro artean	85
85.000,01 euro eta 90.000,00 euro artean	90
90.000,01 euro eta 95.000,00 euro artean	95
95.000,01 euro eta 100.000,00 euro artean	100
100.000,01 euro eta 105.000,00 euro artean	105
105.000,01 euro eta 110.000,00 euro artean	110
110.000,00 euro baino gehiago	115

2. Emaizta gisa lortutako kopurua edozein dela ere, honako muga hauetako bakoitza aplikatuko da:

a. Jardueraren defizitaren muga: gastuen guztizkoaren eta diru sarreren guztizkoaren arteko aldean ezartzen da muga.

b. Diruz lagun daitezkeen gastuen muga: diruz lagun daitezkeen gastuen guztizko kopuruan ezartzen da muga.

c. Eskatutako zenbatekoaren muga.

3. Muga horiek aplikatu ondoren, erakunde eskatzaile guztiek jaso beharreko zenbatekoaren batura deialdiaren zenbateko osoa baino txikiagoa bada, bigarren banaketa bat egingo da soberako zenbatekoarekin aurreko apartatuan ezarritako muga ekonomikoetara iritsi ez diren erakundeen artean.

Bigarren banaketa horretarako, soberako kopurua zatituko da aurreko apartatuan ezarritako muga batera ere iritsi ez diren erakundeen puntu kopuruarekin; horrela, puntuari dagokion bigarren balio bat lortuko da. Bigarren puntu balio hori erakunde bakoitzari emandako puntu kopuruarekin biderkatuko da. Horrela, bigarren banaketa horretan esleitu beharreko diru kopurua lortuko da, eta lehen banaketari gehituko zaio.

Soberakin ekonomikorik badago, aurreko paragrafoan deskribatutako eragiketa errepikatuko da, harik eta deialdiaren gehieneko kopurura iritsi arte, edo entitate guztiek aurreko atalean adierazitako mugaren batera heldu arte.

12. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

1. Balorazio Batzorde batek aztertuko ditu eskabideak. Batzorde horrek kontuan hartuko du otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, bere 3.7 artikuluan ezarritakoa. Hortaz, honako kide hauek izango ditu:

– Batzordeburua: Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Batzordekidea: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuko teknikari bat.

– Idazkaria: Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko talde teknikoko pertsona bat.

2. Balorazio batzordeak akta egingo du, aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera aztertu ondoren, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun zerrenda zehaztuko da, hala badagokio.

3. 8. Artikuluan zehaztutako organoak deialdia ebatziko du gehienez sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan, esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek ulertu beharko dute eskaera ezetsi egin dela.

4. Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zer erakunde eskatzaileri eman zaien, eta espresuki adierazi gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

5. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. Artikulua xedatutakoari jarraiki.

6. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke horren aurka erabakia eman duen organoaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatutakoaren arabera, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

13. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

Emandako zenbatekoak Kirolaraba Fundazioaren 2022ko ekitaldiko gastuen aurrekontuaren kargura ordainduko dira, bi epeetan: lehena, justifikatu beharreko aurrerakin gisa, laguntzaren ehuneko 50ekoa, deialdiaren ebazpena onartu ondoren; eta bigarrena, esleitutako gainerako kopururaino, deialdi honen 14. artikuluan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Ezingo da ordainketa egin, harik eta erakunde onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan arte.

14. artikulua. Justifikazioa

1. Dirulaguntzen justifikazioa 2022ko irailaren 30era arte (egun hori barne) aurkeztu ahal izango da justifikazio-kontu sinplifikatu baten bidez, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri orokor arautzaileak onartu zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren 11. oinarrian ezarritakoaren arabera. Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduketaren memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita, deialdi honen IV. eranskinean ezarritakoarekin bat etorriz.

b. Jardueraren gastu eta inbertsio guztien zerrenda sailkatua, honako hauek adierazita: hartzekoduna den pertsona fisikoa edo juridikoa, gastu-agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordaintze-data. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera eta dirulaguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita, deialdi honen III. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Bakarrik 1.000,00 euro (BEZa kanpo) gainditzen dituzten fakturak edo dokumentu balioki-deak aurkeztu beharko dira, banaka edo batera, gastu-kontzeptu bererako eta hirugarren edo hornitzaile berarekin erlazionatuta. Era berean, goian aipatutako fakturak ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dira, 1.000,00 eurotik gorakoak badira (BEZa kanpo).

Gastuen justifikazio gisa ez dira onartuko honako datu hauek argi eta garbi identifikatuta ez dituzten fakturak eta/edo ordainagiriak:

- Igorlea: izena edo izen soziala eta NAN edo IFZ.
- Hartzailea: izena edo sozietatearen izena eta NAN edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura-zenbakia.

Halaber, ez dira justifikazio-gastutzat hartuko PFEZren konturako atxikipenen arloko zerga-araudia (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) betetzen ez duten fakturak edo ordainagiriak.

Diruz lagundu daitekeen gastu gisa jasandako BEZaren kuotak zenbatzeko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren edo zerga-egoitza duen zerga-administrazioaren ebazpenak aurkeztu beharko dira. Ebazpen horietan, BEZaren Foru Arauaren 20. hiru artikuluan aurreikusitako Erakundearen izaera soziala aitortzen zaio, Arauaren 20. Bat artikulua 13. paragrafoan bildutako zergaren salbuespena aplikatzearen ondorioetarako.

Fakturen ordainketaren egiaztagiri dagokienez, honako hauek onartuko dira ordainagiri gisa:

- Bankuko ziurtagiria, gutxienez ordainketaren edo transferentziaren zenbatekoa, data eta onuraduna zehazten dituena. Ziurtagiri horrek sinatuta egon beharko du eta/edo bankuaren zigilu estanpatuarekin.
- Faktura egiten duenaren ziurtagiri sinatua eta/edo zigilu estanpatuarekin, faktura-zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa-data zehaztuta.
- Posta arruntez jasotako banku-laburpenak.
- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, dagozkien mugimenduekin.
- Posta elektronikoz jasotako banku-laburpen elektronikoak edo transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilu estanpatuarekin.
- Erosketa motak, baldin eta erosketa eginda zenbatekoa ordaindu bada (merkataritza-gunea, autobidea, bidaiatxartelak, etab.) edo faktura jaulki duen enpresaren zigilua duten fakturak, faktura ordaindu dela zehazten dutenak.

Ez dira onartuko 2022ko ekitaldirako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoa edo handiagoa duten eragiketen edo atzerri-monetan duten kontrabaliaren diru-ordainketak.

Aurreko lerrokadan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasunen entrega edo zerbitzuen prestazioa zatikatu ahal izan den eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Jarduera egin ondoren, aurkeztutako eta gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatuan islatutako datuetan edozein aldaketa gertatzen bada, eta aldaketa horrek eskabidean aurkeztutakoekiko aldaketa badakar, eta datu horiek dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartu baziren, dirulaguntza berriz kalkulatu da, deialdiaren 8. artikuluan jasotako irizpideekin bat etorritik, eta ezin izango da inolaz ere hasieran emandakoa baino handiagoa izan.

Era berean, ez dira justifikazio-gastu gisa onartuko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen arloko zerga-araudia betetzen ez duten fakturak edo ordainagiriak.

Langileen gastuak justifikatzeko, agiri hauetako bat baino ez da onartuko:

- Nomina, soldata kobratu duela zehazten duen langilearen sinadurarekin.
- Langileak sinatutako idazkia, dagokion hilekoa eta zenbatekoa kobratu duela zehazten duena.
- Inplikaturako langileen 10-T dokumentua.
- Nominen ordainketa taldekatuaren banku-laburpena. Horrekin batera, enpresa/erakunde onuradunaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, eta bertan zehaztuko da langileen nominak transferentzia horren kontura ordainduta daudela, eta langile bakoitzari aurkeztutako hileko bakoitzeko dagokion zenbatekoa adieraziko da.
- TC1. Gizarte Segurantzaren aplikazioaren bidez sortutako dokumentua (RED sistema), hatz-marka digitala duena, edo haren kopia, konpultsatu gabe, Gizarte Segurantzaren bulegoetan aurkeztuta, finantza-erakundearen balidazio-zigiluarekin edo, hala badagokio, kotizazioen ordainketa-laburpenarekin.

• TC2. Gizarte Segurantzaren aplikazioaren bidez (RED sistema) hatz-marka digitalarekin sortutako dokumentua edo haren kopia, konpultsatu gabe, Gizarte Segurantzaren bulegoetan aurkeztuta.

Diruz lagundu daitekeen gastu gisa egindako PFEZren atxikipenak zenbatzeko, aurkeztu diren hiruhileko 110 ereduak, PFEZaren konturako atxikipenak eta diru-sarrerak eta horiek ordaindu izanaren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

c. Diruz lagundu daitezkeen 1.000,00 eurotik gorako gastuak ordaindu izanaren banku-egiaztagiriak. Ez da onartuko gutxienezko datuak biltzen ez dituen banku-ordainagiririk, enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola argi eta garbi identifikatu ahal izateko.

Honako hauek onartuko dira ordainagiri gisa:

• Bankuko ziurtagiria, gutxienez honako hauek jasotzen dituena: zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri horrek sinatuta egon beharko du eta/edo finantza-erakundearen zigilu estanpatuarekin.

• Faktura egin duen erakundearen ziurtagiri sinatua eta/edo zigilu estanpatuarekin, faktura-zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa-data zehaztuta.

• Posta arruntez jasotako banku-laburpenak.

• Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, dagozkien mugimenduekin.

• Posta elektronikoz jasotako banku-laburpen elektronikoak edo transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen finantza-erakundearen zigilu estanpatuarekin.

d. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste laguntza eta dirulaguntza batzuei buruzko informazioa, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

e. Joan-etorriak ibilgailu partikularretan egin badira. III. Eranskina behar bezala beteta, deialdian ezarritakoaren arabera.

f. Erantzukizunpeko adierazpena, deialdiaren V. eranskinean ezarritakoaren arabera.

g. Erakunde eskatzaileak, 2021. urtean Fundazioaren laguntza ekonomikoa jaso badu, Kirolaraba Fundazioaren publizitatea dagoela frogatu beharko du (kirol-ekipamendua, kartelak, web-orria edo beste edozein hedabide).

2. Organo izapidegileak egokitzen jotzen dituen dokumentu, argibide, frogagiri eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie entitate onuradunei, dirulaguntza dagokion xederako ez besterako erabili izanaren arrazoizko ebidentzia lortzeko.

3. BEZaren kuota jasanak diruz lagundu daitekeen gastutzat jotzeko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren edo zerga egoitzaren kokalekuko zerga administrazioaren ebazpena aurkeztu beharko da. Ebazpen horretan, onartuta egongo da erakundearen izaera soziala, BEZaren Foru Arauaren 20. Hiru artikuluan aurreikusitakoa, 20. Bat artikulua 13. apartatuak jasotzen duen zerga salbuespena aplikatzeko.

4. Justifikazio-agiriak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa, Arlo Pertsonalean (https://e-s.araba.eus/wps/portal/iniciarsesion_eu), "Nire zerbitzuak" atalean, deialdiko espediente zehatzean sartuta. Erakundeak erantzukizunpeko adierazpen bat sinatuko du (V. eranskina), eta bertan adieraziko du espedienteari erantsitako fitxategiak jatorrizkoen irudi fidela direla, erakunde eskatzailearen esku daudela eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituela, hala eskatzen zaionean..

Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik, faktura elektronikoa gastuak justifikatzeko erabili ahal izango dira.

Faktura elektronikoa aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, onartu egingo dira konfiantzazko zerbitzu elektronikoen eskaintzaileen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak <https://sede.serviciosmin.gob.es/eu-es/firmaelectronica/Paginas/Prestadores-de-servicios-electronicos-de-confianza.aspx>.

5. Jarduera egin eta gero, aurkeztutako datuetan edozein aldaketa eginez gero, horrek eskabidean adierazi ziren eta dirulaguntza kalkulatzeko oinarri moduan erabili ziren datuetan aldaketarik sortzen bada, hura berriro kalkulatu beharko da, deialdi honetan jasotzen diren irizpideen arabera, eta ezin izango da, inola ere, hasieran bideratutakoa baino handiagoa izan.

6. Deialdi honen 14.1 artikuluan adierazitako epea amaitzen bada, aipatutako dokumentazioa aurkeztu gabe, ordainketa kredituak baliogabetuko dira, eta "konturako ordainketa" moduan jasotako diru kopuruak itzultzeko espedientea abiaraziko da.

15. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

Entitate laguntzaileek Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

a) Laguntza emandako xede zehatzerako erabiliko dute.

b) Arabako Foru Aldundiak egindako egiaztatze jarduketak beteko dituzte, finantza kontrolak eta/edo aipatutako administrazio publikoko kontu hartzaileak egindako kontrolak beteko dituzte eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoak beteko dute.

c) Aurkeztutako dirulaguntza eskaera balioesteko egoki irizitako argibide eta agiri guztiak ematea Arabako Foru Aldundiari.

d) Deialdi honetan ezarritako betebeharrak betetzea, bai eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kontura jasotako laguntza eta dirulaguntzak direla eta ezarritako gainerako betebeharrak eta eginkizunak ere.

e) Egiaztatzea baldintzak betetzen dituela eta dirulaguntza emateko eta hartaz gozatzeko oinarri izan den jarduera egin duela.

16. artikulua. Erantzukizunak

Erakunde onuradunak beren gain hartuko ditu jarduerak gauzatzearen ondoriozko erantzukizun guztiak, eta indarrean den legediak jarduerak edo programak gauzatzeko galdegiten dituen baimen guztiak eskatu beharra dauka.

17. artikulua. Publizitatea

1. Deialdi hau ALHAOn iragarki bat jarriz jakinaraziko da. Horrez gainera, fundazioaren web orrian ere jarriko da: www.kirolaraba.eus.

2. Deialdi honetako dirulaguntzen erakunde onuraduna behartuta dago berariaz eta modu argian adieraztera diruz lagundutako jarduerari buruzko argibide, publizitate eta propaganda orotan Kirolaraba Fundazioak babeska eman duela; edonola ere, laguntza ekonomikoa ematen zuen ebazpenean zehazten ziren baldintzetan egingo da hori.

3. Herritarrei jarduera lagungarria zabaltzeko diren liburuxkak, kartelak eta bestelako euskarriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira. Gainera, publizitate horretan hizkuntza eta irudiak berdintasunez eta sexismorik gabe erabiliko dira, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotiporik gabekoa bermatuz.

18. artikulua. Interpretazioa

Deialdi hau interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza Kirolaraba fundazioak ebatziko du.

19. artikulua. Delegazioa

Deialdi honen 8. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, laguntzak emateko prozeduraren ebazpena Patronatuko lehendakariaren esku uzten da, baita ebazpen horien aurka jarritako berraztertze errekurtsoak ebatzea ere.


20. artikulua. Azken klausula

Deialdi honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak (Kultura eta Kirol Sailaren norgehiagoka bidezko dirulaguntzen emakida arautzen duten oinarri orokor arauemaileak onartu zituen) diotenari, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak dirulaguntzen arloan arautzen dituen xedapenei, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duenak, ezarritakoari lotzen zaio, bai eta araudi aplikagarriak xedatzen duen guztiari ere.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 7a

Kirolaraba Fundazioaren Patronatuko presidentea
ANA M. DEL VAL SANCHO

Patroia
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

	Goi Mailako Klubentzako laguntzak. (I. eranskina) Federazioaren Ziurtagiria	2022
	Ayudas para Clubes de Alto Nivel. (Anexo I) Certificado Federación	

FEDERACIÓN ALAVESA DE	ARABAKO FEDERAZIOA
-----------------------	--------------------

ZIURTATZEN DU ■ CERTIFICA

Ondoren zehazten den kirol klubak edo taldeak honako datuak dituela:

Que el siguiente club o agrupación deportiva tiene estos datos:

Sozietatearen izena ■ Razón social

	IFZ NIF
--	------------

Kirol diziplina	
Disciplina deportiva	

Elkartearen maila goreneko taldea ■ Equipo de máxima categoría de la entidad

Maila	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Mistoa
Categoría	Femenina <input type="checkbox"/>	Masculina <input type="checkbox"/>	Mixto <input type="checkbox"/>

(markatu X batekin ■ marcar con una X)

Lehiaketaren izena 2021 eta/edo 21/22	
Denominación de la competición 2021 y/o 21/22	

Arabian lurralde historikoan dago	<input type="checkbox"/>	Está radicado/a en el Territorio Histórico de Álava.
Eusko Jaurlaritzako kirol erakundearen erregistroan erregistratuta dago	<input type="checkbox"/>	Está inscrito/as en el Registro de Entidades deportivas del Gobierno Vasco.
Arabako kirol federazio honi atxikita dago	<input type="checkbox"/>	Se encuentra adscrito/a a esta Federación deportiva alavesa.
Lehiaketa ofizialeko autonomiaz gaindiko jardueretan parte hartzen du	<input type="checkbox"/>	Participa en competición oficial de nivel superior al autonómico
Kategoria goren absolutuko kide da, kirol modalitate eta/edo espezialitate bereko taldeetan 2021/2022	<input type="checkbox"/>	Milita en la máxima categoría absoluta entre los de la misma modalidad y/o especialidad deportiva, en la temporada 2020/2021.
Taldeak parte hartu du Espainiako Txapelketaren batean 2021ean zehar. Kategoría absolutua.	<input type="checkbox"/>	El club ha participado en algún Campeonato de España a lo largo de año 2021. Categoría absoluta.
Sartuta dago autonomiako lehiaketaren batean parte hartzen duten xake, esku baloia, emakumezkoen ziklismoa, kirol egokitua, futbol, herri kirolak, errugbi eta waterpoloko modalitateetako taldeetarako salbuespenean, zeinak laguntza honen onuradunak izango diren.	<input type="checkbox"/>	Está incluido/a en la excepción recogida para las modalidades de ajedrez, balonmano, ciclismo femenino, deporte adaptado, fútbol, herri kirolak, triatlón, rugby y waterpolo que participen en alguna competición autonómica, que se incluye entre los beneficiarios de esta ayuda.

(markatu X batekin ■ marcar con una X)

Federazioaren ordezkaria
Representante de la federación

Ordezkararen sinadura
Firma del/la representante

ARABAKO FEDERAZIOAREN ZIGILUA
SELLO DE LA FEDERACIÓN ALAVESA

Orria ■ Hoja 1/1

Kirolaraba A1. Joan-etorriak ibilgailu pribatuetan. III Eranskina. 2021-2022
 Kirolaraba A1. Gasto por traslado en vehículos privados. Anexo III. 2021-2022



Kirolaraba A1. GOI MAILAKO KLUBAK - 2021-2022 Kirolaraba A1. CLUBES DE ALTO NIVEL - 2021-2022									
Eskatzailea (Kluba) / Solicitante (Club):									
IFZA / CIF									
Ibilgailuaren Merkitua Matrícula del Vehículo	Plaza Kopurua (Gidaria baten) Número de Plazas (Incluido el conductor)	Joaneko data Fecha de Salida	Irteko data (Joatekoaren ezberdina bada) Fecha de llegada (Si es diferente a la de salida)	Irteko toki Localidad salida	Irteko toki Localidad llegada	Kilometro kopurua (Tarte bakoitzekoak) Número de kilómetros (De cada trayecto)	Bidearen zenbatekoa guztira Importe total viajes		
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									
11									
12									
13									
14									
15									
16									
17									
18									
19									
20									
21									
22									
23									
24									
25									
26									
27									
28									
29									
30									
31									
32									
33									
34									
35									
36									
37									
38									
39									
40									
Total Kilometroak Total Kilómetros							0	-	€

Nota bate. Adibideak: Vitoria-Gasteizetik Bilbora joan-etorria egun batean, 2 1erro: Vitoria-Gasteiz - Bilbo eta Bilbo - Vitoria-Gasteiz.
 Como referir. Ejemplo: Desplazamiento de ida y vuelta de Vitoria Gasteiz a Bilbao en 1 día, 2 1ros: Vitoria-Gasteiz - Bilbao y Bilbao - Vitoria-Gasteiz

Kultura eta Kirol Saila
 Departamento de Cultura y Deporte

Ordezkararen sinadura eta zigilua
 Firma representante de la entidad y sello



Goi Mailako Klubak.
Memoria. IV. Eranskina
2021-2022
 Clubes de Alto Nivel.
 Memoria. Anexo IV

KIROLARABA A1. GOI MAILAKO KLUBAK - 2021-2022
KIROLARABA A1. CLUBES DE ALTO NIVEL - 2021-2022


Eskatzailea / Solicitante:

Jarduerari Buruzko Datuak Datos de las Actividades	Deskribapena Descripción
Goi Mailako Lehiaketaren Izena Nombre de la Competición de Alto Nivel	
Tokia Lugar	
Lortutako Eraitza Nagusia Resultado Principal Obtenido	
Taldeko Kirolari Kopurua. Banakakoa bada 1. Número de Integrantes del Equipo. 1 en caso de ser individual.	

ENTRENAMENDUEN DESKRIBAPENA / DESCRIPCIÓN DE LOS ENTRENAMIENTOS

HELBURUAK BETETZEA / CUMPLIMIENTO DE OBJETIVOS

Kultura eta Kirol Saila
 Departamento de Cultura y Deporte

	<p>Kirolaraba A1. Goi Mailako Klubak V Eranskina.</p> <p>2021-2022.</p> <p>Kirolaraba A1. Clubes de Alto Nivel Anexo V</p>
---	--

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA	DECLARACIÓN RESPONSABLE
Entitatearen izena:	Nombre de la entidad:

ADIERAZTEN DU

Aurkeztutako datuak egiazkoak dira eta horiek baieztatzeko behar diren egiaztagiri guztiak erraztuko ditu; gainera, eskabidea aztertzeko eskatzen zaion informazio osagarri guztia aurkezteko konpromisoa hartzen du.

Espedienteari erantsitako fitxategiak jatorrizkoen irudi fidela dira, jatorrizkoak elkartearen esku daude eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko ditu, hala eskatzen zaionean Entitateak EZ du soldatapeko langilerik.

DECLARA QUE

Los datos presentados son ciertos y se compromete a facilitar las comprobaciones necesarias para verificar los mismos y a aportar toda la información complementaria que se le solicite con el fin de analizar su solicitud.

Los ficheros que se incorporan al expediente son imagen fiel de los originales, que éstos obran en su poder y que los pondrá a disposición de la Diputación Foral de Álava cuando así sea requerida

.....
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura ■ Firma

Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio bati gehitzen zaion edozein datu edo informazio funtsean zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunaren aurrean erantzukizunpeko adierazpena aurkeztzen ez bada, adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeke eskatzen den dokumentazioa aurkeztzen ez bada, edo jakinarazpena egiten bada, ukitutako eskubidea edo jarduera gauzatzen jarraitu ezin izango da gertaera horien berri jakiten den unetik. Sor litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Entitatearen zigilua ■ Sello de la entidad

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

Orria ■ Hoja 1/1